



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

ETXEZAIN IZATEKO ALDI BATERAKO ZERRENDAK

2016ko 93. Nafarroako Aldizkari Ofizialaren separata, maiatzaren 16koa

933/2016 EBAZPENA, apirilaren 25ekoa, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak emana. Honen bidez onesten dira etxezain izateko izangaien bi zerrenda hautaprobez bidez osatzeko deialdiak. Zerrendetako bat aldi baterako kontratazioetarako da, eta bestea prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran aritzeko.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak dituen langile beharrak ikusirik, bidezkoa da deialdi bat onestea, hautaprobez bidez honako zerrenda hauek osatzeko: batetik, izangaien zerrenda bat etxezainaren lanpostuetan prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko, eta, bestetik, beste zerrenda bat, aipatutako lanpostuetan aldi baterako kontratudun gisa aritzeko. Zerrenda horiek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sortzen diren beharrei erantzuteko erabiliko dira, Osasun Departamentuaren menpeko erakundeetan izan ezik.

Apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera, aldi baterako kontrataziora jo aurretik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek bertako langile finkoei eskainiko dizkiete bete nahi dituzten lanpostuak, eta, horretarako, behar diren hautaprobetarako deia eginen dute, prestakuntza egin nahi duten izangaien zerrendak osatzeko.

Horrenbestez, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan, azaroaren 15eko 347/2004 Foru Dekretuan eta Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren abenduaren 30eko 199/2004 Foru Aginduan ezarritakoarekin bat, eta Nafarroako Administrazio Publikoetan Sartzeko Erregelamenduaren 42.2.c) artikuluaarekin eta Aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren abenduaren 31ko 814/2010 Foru Aginduarekin bat, honako deialdiak iragartzen dira:

I.
**ETXEZAINAREN LANPOSTUETAN ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO
IZANGAIEN ZERRENDA HAUTAPROBEN BITARTEZ OSATZEKO DEIALDIA**

Hauek dira deialdiaren oinarriak:

Lehen.–Deialdia egiten da etxezain lanpostuetan aritzeko izangaien zerrenda bat osatzeko hautaprobek bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sortzen diren beharrak aldi baterako bete ahal izateko (Osasun Departamentuaren menpekoetan izan ezik).

Aldi baterako kontratatuak izateko izangaien zerrenda hori erabili baino lehen, apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretuan xedatutakoaren arabera prestatu diren edo etorkizunean prestatzen diren langile finkoen zerrendak erabiliko dira.

Bigarrena.–Betebeharrak.

2.1. Parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Espainiako nazionalitatea izatea edo Europar Batasuneko estaturen batekoa edo, Europar Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako nazioarteko itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatzen den estaturen batekoa.

Orobat, parte har dezakete espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuak herritarren ezkontideek, edo aipatu nazioarteko itunen aplikazio eremuan sartutako estatuak herritarren ezkontideek, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, baldin haien kontura bizi badira.

b) Hamasei urte beteak izatea eta erretiroa nahitaz hartzeko gehieneko adina gauditua ez izatea.

c) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, DBHko graduatu titulua, Eskola graduatuen titulua, Oinarrizko Lanbide Heziketakoa, Lanbide Heziketako lehen mailakoa edo horien baliokide bat izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiria eduki beharko da.

d) Bete behar dituen eginkizunetan aritzeko adinako gaitasun fisiko eta psikikoa izatea.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik bereizita ez izatea.

f) Haurrentzako eta nerabeentzako babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, etxezain lanpostuan aritzeko baldintza da epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

2.2. 2.1.c) atalean eskatzen den tituluaren betekizuna, baita 2.1.f) atalean eskatutakoa ere, agiri bidez frogatu beharko dira, bi deialdietarako balio duen zazpigarren arauan xedatutakoarekin bat.

2.3. Deialdi honetako 2.1 oinarrian ezarritako baldintza guztiak eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, bai eta hautapen prozedurak eta kontratazioak iraun bitartean ere.

2.4. Espainiako nazionalitatea duten parte-hartzaileek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari baimena emateko aukera dute, II. eranskinean ageri den eskabide ereduaren bitartez, haien identitatearen eta adinaren inguruko datuak kontsultatzeko, beharrezkoak baitira espedientea tramitatu eta ebazteko. Datuak Egiaztatu eta Kontsultatzeko Estatuko Administrazio Orokorraren Zerbitzuen bidez (SVCD) kontsultatuko dira datuak, edo beste sistema baliokide baten bidez. Kontsulta baimentzen ez bada, NANaren fotokopia aurkeztu beharko da parte hartzeko eskabidearekin batera.

Desadostasunik sortzen bada ofizioz egiaztatutako datuen eta interesdunak deklaritzen dituen artean, edo haien gaineko alderdiren bat argitu behar bada, errekerimendua egingen da, 30/1992 Legearen 71. eta 76.2 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

2.5. Espainiako nazionalitatea ez duten parte-hartzaileek beren identitatea eta nazionalitatea frogatzen dituzten agirien fotokopia aurkeztu beharko dute, eta, hala badagokio, 2.1.a) oinarrian nazionalitateari eta ahaidetasunari buruz eskatzen diren baldintzena. Gainera, zinpeko aitortpena egin beharko dute, edo hitzeman beren jatorrizko herrialdean funtzio publikoan aritzea eragozten dien diziplina zehapen edo kondena penal baten menpe ez daudela.

Hirugarrena.–Hautapen prozesuaren garapena eta balorazioa.

Ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdietarako balio duten arauetan xedatuarekin bat gauzatuko da hautapen prozesua.

Laugarrena.–Aldi baterako kontrataziorako dei egitea.

Izangaiei dei egin eta, hala bada, kontratatzerakoan, arau hauetan ezarritakoari jarraituko zaio: Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 88. artikulua eta hurrengoak; deialdi honen oinarriak; aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak abenduaren 31n emandako 814/2010 Foru Agindua (2011ko 31. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, otsailaren 15ekoa); eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

Deia egiterakoan kontuan hartuko da, halaber, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 4. atalean ezarritakoa. Horren bidez, desgaitasunen bat duten pertsonak Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua lortzeko moduaren xehe-tasunak arautzen dira. Horretarako, %33koa edo handiagoa den desgaitasun aitortua duten pertsonak organo eskudunak luzatutako agiriaren kopiaren bidez frogatu behar dute egoera hori.

II.

ETXEZAIN GISA PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZETAN ARITZEKO IZANGAIEN ZERRENDA OSATZEKO DEIALDIA

Hauek dira deialdiaren oinarriak:

Lehena.–Deialdia egiten da etxezainaren lanpostuetan prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeran arituko diren izangaien zerrenda bat osatzeko hautaprobaren bidez. Zerrenda hori Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan sortzen diren beharrak aldi baterako betetzeko erabiliko da, Osasun Departamentuaren menpeko erakundeetan izan ezik.

Bigarrena.–Betebeharrak.

2.1. Parte hartu nahi dutenek, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langile finkoa izatea, E mailakoa edo taldekkoa, eta eskubidez dagokion gehieneko prestakuntzaldia agorturik ez izatea.

b) Beren lanpostuan gutxienez hiru urteko zerbitzualdia benetan egina izatea.

c) Borondatezko edo nahitaezko eszedentzian ez egotea.

d) Eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean, DBHko graduatu titulua, Eskola graduatuen titulua, Oinarrizko Lanbide Heziketakoa, Lanbide Heziketako lehen mailakoa edo horien baliokide bat izatea, edo titulu hori eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekina. Titulu hori ezin da izan langile finkoari jardunean aritzeko balio diona.

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren egiaztatzea eduki beharko da.

e) Haurrentzako eta nerabeentzako babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legearen arabera, etxezain lanpostuan aritzeko baldintza da epai irmo baten bidez kondenatua ez izatea sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketarengatik ere.

2.2. Oinarri honen 2.1.d) atalean eskatzen den tituluaren betekizuna, baita 2.1.e) atalean eskatutakoa ere, agiri bidez frogatu beharko dira, bi deialdietarako balio duen zazpigarren arauan xedatutakoarekin bat.

2.3. Deialdi honetako 2.1 oinarrian jasotako baldintza guztiak eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunerako bete beharko dira, bai eta deia egiten denean eta prestakuntzaldiak iraun bitartean ere.

2.4. Deialdi honetan ezin dute parte hartu Hezkuntza Departamentuko irakasleek, Osasun Departamentuaren menpeko erakunde autonomoei atxikitako langileek, Nafarroan Justizia Administrazioan ari diren langileek, ez eta Nafarroako Administrazio Publikoetako Langileen Estatutuaren aplikazio eremutik baztertutako langileek ere.

Hirugarrena.–Hautapen prozesuaren garapena eta balorazioa.

Ebazpen honen bidez onetsitako bi deialdietarako balio duten arauetan xedatuarekin bat gauzatuko da hautapen prozesua.

Laugarrena.–Prestakuntzaldian aritzeko izangaiei dei egitea.

Deia eta, hala badagokio, prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoeraren deklarazioa honako hauetan ezarritakoari jarraikiz egingen da: apirilaren 14ko 96/1997 Foru Dekretua; Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariaren abenduaren 30eko 199/2004 Foru Agindua, prestakuntzarako lanpostuetan aritzeko izangaien

zerrendak osatu eta kudeatzeko prozedura ezartzen duena (157. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, abenduaren 31koa); eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

III. BI DEIALDIEN ARAU KOMUNAK

Lehena.–Eskabideak aurkezteko epea.

Bi deialdietan, parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea hamabost egun naturalekoa izanen da, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bigarrena.–Eskabideak.

2.1. Deialdietan parte hartzeko eskabideak Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean aurkeztu beharko dira (Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa, 31002 Iruña), edo Nafarroako Gobernuko Erregistroaren beste edozein bulegotan (zerrenda 2015eko 57. eta 103. Nafarroako Aldizkari Ofizialetan argitaratu zen, martxoaren 25ean eta maiatzaren 29an), edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz.

Eskabidea posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian aurkeztuko da, postako langileek data eta zigilua jar ditzaten, ziurtatu aurretik.

Halaber, ekainaren 23ko 70/2008 Foru Dekretuan xedatutakoarekin bat, eskabidea telematika bidez aurkeztzen ahalko da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Erregistro Orokor Elektronikoan. Erregistro hori Nafarroako Gobernuaren Interneteko web atarian dago (www.navarra.es). Kasu horretan, parte hartzeko eskabide berariazkoarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eransteko, Erregistro Orokor Elektronikoan artxiboak eransteko aurreikusita dauden formatuetatik edozein erabil daiteke.

2.2. Eskabideak II. eranskinean heldu den ereduaren arabekoak izanen dira, aldi baterako kontratazioko izangaien kasuan, eta III. eranskineko ereduaren arabekoak, prestakuntzarako izangaien kasuan. Eredu horiek Nafarroako Gobernuko Erregistro Orokorrean daude eskuragarri. Interneten bidez ere lortzen ahal dira, www.navarra.es helbidean, bai deialdia argitaratzen duen aldizkari ofizialetik abiatuta, bai deialdiaren estekatik abiatuta.

Parte hartzeko eskabidean, izangaiek adieraziko dute baldintza guztiak betetzen dituztela eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

2.3. Aldi baterako kontratazioaren deialdian parte hartzen dutenek IV. eranskineko eskabidea ere aurkeztu behar dute, betea eta sinatua, hautatzeko zer eskualdetan aritu nahi duten eta adierazteko prest dauden lanaldi partzialeko kontratuak onartzeko. Hala egin ezean, ulertuko da eskualde guztiak hautatzen dituztela eta prest daudela lanaldi partzialeko kontratuak onartzeko.

Nahi adina eskualde aukera daitezke, ez baitira bateraezinak.

Zein hautatzen diren, horrek ondorioak izanen ditu zerrendak indarra duen denbora guztian.

2.4. Euskarazko 2. jakite mailaren betekizuna duten kontratazioak hautatu nahi dituztenek, parte hartzeko eskaeraz gain, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailari dagokion tituluaren kopia aurkeztu beharko dute, edo hizkuntza eskola ofizial batek luzatutako Euskararen Gaitasun Agiriarena edo ofizialki baliokidea den beste titulu batena.

Izangaiek titulu hori ez badu, proba bat egiteko aukera izanen du, eta horrela zehaztuko da beharrezkoa den maila baduen hizkuntza horretan. Aipatu proba egin nahi dutenek hala dela eman behar dute aditzera parte hartzeko eskaeran, horretarako ezarritako tokian.

2.5. Etxezain lanpostuan aritzeko deia jasotzen duten izangaiek, ez bestek, aurkeztu beharko dituzte deialdiko titulazio betebeharra frogatzen duten agiriak, kontratua gauzatzen denean edo prestakuntzarako zerbitzu berezietako egoera adierazten denean.

Halaber, etxezain lanpostuan aritzeko deia jasotzen duten izangaiek Sexu Delituen Egileen Erregistro Nagusiak emandako ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute, abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuan araututa baitago.

Halaber, gidabaimena izatea eskatzen duten lanpostuetan aritzeko deituak direnek baldintza hori betetzen dutela frogatzen duen agiria aurkeztu beharko dute deia egitean.

2.6. Desgaitasun aitorturen bat duten izangaiek, parte hartzeko eskabidearekin batera, egoera horren frogagiria aurkeztu beharko dute, organo eskudunak emana. Halaber, azterketak egiteko denboraren edo baliabideen egokitzapenak eskatzen ahalko dituzte. Kasu horretan, eskabidean behar den tokian adierazi beharko dute, eta, horrez gainera, aparteko orri batean, nolako desgaitasuna duten eta zer egokitzapen eskatzen duten.

Hirugarrena.–Izangaien onarpena.

3.1. Behin-behineko zerrendak.

Eskaerak aurkezteko epea bukatu, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiko Langileriaren Kudeaketako Zerbitzuak onetsi diren deialdietan onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrendak ikusgai jarriko ditu Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean (Iruñeko Karlos III.aren etorbideko 2ko atalondoa) eta Nafarroako Gobernuaren Interneteko web-orrian (www.navarra.es). Izangai bazterturik ez bada, onartuen zerrendak behin betiko onetsiko dira zuzenean.

Egun horretatik aurrera, argitaratu ondoko hamar egun balioduneko epean, izangaiak errekamazioak egiten ahalko dituzte, edo eskabidean egindako akatsak zuzendu.

Eskaeran adierazten dutenek deialdietan komunak diren arauen 2.4 oinarrian ezarritako euskara titulueta bat dutela, zuzenketak egiteko epea iraganda ez badute aurkeztu, euskararen mailaketa proba egiteko deia jasoko dute.

3.2. Behin betiko zerrendak.

Errekamazioak aurkezteko epea bukatu eta haien gainean ebatzi ondoren, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiak, ebazpen baten bidez, izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendak onetsiko ditu eta Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean (Iruñeko Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa) eta Nafarroako Gobernuaren Interneteko web-orrian (www.navarra.es) argitaratuko ditu, deialdi hauetan ezarritako hautaprobak egiteko egunarekin eta tokiarekin batera.

Onartuen zerrendetan agertzea ez da aski deialdietan eskatutako betebeharrak betetzen direla aitortzeko. Izangaiak aurkeztutako dokumentazioa edo Administrazioak bere esku daukana aztertuta, eskatutako baldintzetako bat betetzen ez dutela ikusiz gero, interesdunek deialdietan parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

3.3. Izangai onartu eta baztertuen zerrendak argitaratzearekin ulertuko da interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin dela, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59. artikuluan aipatzen diren ondorioetarako.

Laugarrena.–Proba.

4.1. Ebazpen honen bidez onesten diren deialdietarako hautapen prozesua proba baten bidez egingen da. Proba horretan 50 galdera erantzun beharko dira ebazpen honen I. eranskinean agertzen diren gaiak buruz. Erantzuteko hainbat aukera eskainiko dira, baina bakarra izanen da zuzena. Erantzun okerrenatik puntuak kenduko dira.

Kalifikazio Epaimahaiak finkatuko du probaren gehieneko iraupena, ariketa hasi aurretik. Erantzun oker bakoitzak penalizazioa ekarriko du, erantzun zuzenaren balioaren laurdena hain zuzen.

Proba hauek egiteko ez da inolako testurik erabiltzen ahalko, ezta kalkulagailurik edo bestelako materialik ere, mutur lodiko bolaluma urdina edo beltza ez bada.

4.2. Proba horrek 50 puntuko kalifikazioa izanen du, gehienez ere. Hautaprobaren ezarritako gehieneko puntuazioaren %30 gutxienez lortzen dutenek gaituko dute proba.

4.3. Probetarako dei bakarra egingen da. Hartara nortasun agiri nazionala, pasaportea, gidabaimena edo epaimahaiak aski duen beste nortasun agiri bat aldean dutela agertu beharko dute parte-hartzaileak. Beren nortasuna frogatzen ez dutenak edo agertzen ez direnak baztertu egingen dira.

4.4. Hautaprobak egiteko, desgaitasun aitorturen bat dutenentzat bidezkoak diren denbora eta baliabide egokitzapenak jarriko dira, eskabidean azaldutakoaren arabera.

4.5. Euskararen proba: 4.1. atalean zehaztutako probaren kalifikazioak argitaraturik proba gaituko dute izangaien batek euskara maila neurtzeko proba eskatu badu, epaimahaiak Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren laguntza eskatuko du. Organo horrek mailaketa proba bat egingen du, eta izangaiak "gai" edo "ez gai" kalifikazioa emanen die, euskarazko 2. jakite maila eskatzen zaiela kontuan hartuta.

Epaimahaiak, horretarako, Euskarabidearekin bat, euskara proba egiteko tokia, eguna eta ordua iragarriko ditu. Izangai horientzako deialdia Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean argitaratuko da (Iruñeko Karlos III.aren etorbideko 2, atalondoa), baita Nafarroako Gobernuaren Interneteko www.navarra.es web orrian ere.

Euskararen berriazko proba egiteko deia jasotzen duten izangaiak, deialdien arau komunen 2.4 oinarrian ezarritako titulueta bat aurkeztu badute proba hori egin baino lehen, salbuetsita geldituko dira euskararen proba egiteko eta epaimahaiak "gai" kalifikazioa emanen die.

Euskara maila neurtzeko proben kalifikazioa emanik, emaitzak argitaratuko dira, aurreko paragrafoan ezarritako modu beretan.

Bosgarrena.–Kalifikazio epaimahaia.

5.1. Kalifikazio epaimahaia honako hauek osatuko dute:

Burua: Iñigo Lerga Ayape jauna, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Irakaskuntzak Garatzeko Bulegoko burua.

–Ordezko epaimahaiburua: Pedro Lázaro Viloche jauna, Hezkuntza Departamentuko irakaskuntzako aholkularia.

Mahaikidea: Luis Sierra Marrón jauna, Hezkuntza Departamentuko irakaskuntzako aholkularia.

–Ordezko mahaikidea: Francisco Javier Esquíroz Azpilicueta jauna, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketa Berriztatzeko Bulegoko burua.

Mahaikidea: José Ángel Ros Nestares jauna, Hezkuntza Departamentuko Mantentze-lanen Bulegoko burua.

–Ordezko mahaikidea: Maravillas Alemán Díez de Ulzurrun andrea, Hezkuntza Departamentuko Egoitzen eta Ikastetxeen Mantentze-lanetarako Ataleko burua.

Mahaikidea: langileen ordezkari bat, Hezkuntza Departamentuko Langileen Batzordeak proposatua.

–Ordezko mahaikidea: langileen ordezkari bat, Hezkuntza Departamentuko Langileen Batzordeak proposatua.

Mahaikide-idazkaria: Tania Pérez Tellería andrea, Hezkuntza Departamentuko Laguntza Juridikoaren Bulegoko burua.

–Ordezko mahaikide-idazkaria: Fermín Casado Leoz jauna, Hezkuntza Departamentuko Araubide Juridikoaren Ataleko burua.

5.2. Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean abstentziorako aipatzen diren arrazoietakoa bat gertatzen denean, epaimahaiko kideek ezin izanen dute epaimahaian parte hartu, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi beharko diote.

Halaber, zilegi da mahaikideak errefusatzeko, inguruabar horietako bat gertatzen denean.

Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek beraiek uko egiteko edo haiek errefusatzeko legez ezarritako kasuak direla-eta, argitara emanen da, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

5.3. Epaimahaia hautapen-proba hasi baino lehen eratu da.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketak eta jardunak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak edo haien ordezkoez bertan egon beharko dute.

5.4. Epaimahaiak gehiengoz erabakiko ditu deialdi hauen oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

5.5. Epaimahaiak aholkulari espezialistak hartzen ahalko ditu probarako, eta horiek beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko, eta haietan bakarrik emanen diete laguntza epaimahaikoei.

Seigarrena.–Emitzak.

6.1. Proba kalifikatzen bukatu ondotik, epaimahaiak Nafarroako Gobernuaren iragarki-oholean eta Nafarroako Gobernuaren Interneteko web-orrian (www.navarra.es) argitaratuko ditu lortutako puntuazioak, eta 5 egun balioduneko epea emanen du emaitzei buruzko alegazioak egiteko.

6.2. Behin alegazioetarako epea iraganik, eta horiek ebatzirik, parte-hartzaileen artean berdinketarik izanez gero, epaimahaiak irizpide hauen arabera ebatziko ditu:

a) Aldi baterako kontrataziorako deialdia: berdinketak zozketa bakar baten bidez erabakiko dira, zeina kalifikazio epaimahaiak eginen baitu. Berdintutako guztien artean, bat ausaz hautatuko da. Berdinketa guztiak hurrenkera alfabetikoari jarraituz deseginen dira, zozketan hautatutakoaren abizenak eta izena abiapuntu harturik. Zozketaren emaitzak Nafarroako Gobernuaren web-orrian eta iragarki oholean argitaratuko dira.

b) Izangai berriak prestakuntzaldian aritzeko deialdia: deialdi honetako eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean izangaiek aitortuta daukaten antzinatasunaren arabera hautatuko dira berdinketak, antzinatasun handiena duena lehenetsiz. Berdinketak badirau, aldi baterako kontratazioetarako deialdian berdinketak hausteko ezarritako zozketaren arabera ebatziko da.

6.3. Probak kalifikatzen bukatu ondotik, eta berdinketa ebatzirik, epaimahaiak honako zerrenda hauek argitaratuko ditu, berezita, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean eta Nafarroako Gobernuaren Interneteko web-orrian (www.navarra.es):

–Aldi baterako kontratatuak izateko deialdiko proba gainditu duten izangaiei zerrenda, guztira lortutako puntuen hurrenkeraren arabera.

–Prestakuntzarako zerbitzu berezietan aritzeko izangai berrientzako deialdiko proba gainditu dutenen zerrenda, guztira lortutako puntuen hurrenkeraren arabera.

Epaimahaiak, halaber, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari igorriko dizkio arau honetan aipatzen diren zerrendak, onets ditzan, hautapen prozesuaren espediente osoarekin batera.

Zazpigarrena.–Etxezain lanpostuetan aritzeko izangaien zerrendak.

7.1. Behin betiko zerrendak.

Hautapen prozesuaren espediente osoa jasota, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez onetsiko da izangaien zerrenda, Nafarroako Gobernuaren iragarki oholean (Iruñeko Karlos III.aren etorbidea, 2, atalondoa) argitaratuko dena, bai eta Nafarroako Gobernuaren web-orrian ere (www.navarra.es).

7.2. Deia.

Arau honetan aipatutako zerrendetan ageri diren izangaiei dei egiteko, ebazpen honen bidez onetsitako deialdietako oinarrietan ezarritakoari jarraikiko zaio; betiere, prestakuntzarako izangaiak lehenetsiko dira aldi baterako kontratatutako izateko izangaien aurretik.

Deitzen diren pertsonak egiaztatu beharko dute ez direla inoiz epai irmo baten bidez kondenatuak izan sexu-askatasunaren eta sexu-ukigabetasunaren kontrako delitu batengatik, ezta gizakien salerosketagatik ere eta, horretarako, abenduaren 11ko 1110/2015 Errege Dekretuak arauturiko Sexu Delitugileen Erregistro Zentralaren ziurtagiri negatiboa ekarri beharko dute.

Deia jasotzen dutenek kasuan kasuko deialdian eskatutako titulazioaren betebeharrak betetzen dituztela frogatzeko agiriak aurkeztu beharko dituzte; horretarako, DBHko graduatu tituluaren fotokopia, Eskola graduatuen tituluarena, Oinarrizko Lanbide Heziketarena, Lanbide Heziketako lehen mailarena edo horien baliokidearena aurkeztu beharko dute, edo titulua eskuratzeko eskubideak ordaindu izanaren gordekinarena, betiere eskabideak aurkezteko epea bukatu baino lehen eskuratua.

Eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak hautapen prozesutik baztertuko dira, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez, eta deialdi honetan parte hartzeagatik izan ditzaketen eskubide guztiak galduko dituzte.

Etxezain lanpostuak aldi baterako betetzeko B motako gidabaimena izatea beharrezkoa denean, izangaiek baimen hori badutela frogatu beharko dute dei egiten zaienean.

Zortzigarrena.–Gehieneko denbora prestakuntzarako zerbitzu berezietan.

8.1. 4 urteko bigarren prestakuntzaldian sartzen diren izangaiak ezin dira 10 urte baino gehiago egon prestakuntzarako zerbitzu berezietan, epe horretan lanpostu batean baino gehiagotan aritzen badira ere.

8.2. Prestakuntzarako zerbitzu berezietan 6 urte bitarte egoteko eskubidea duten izangaiek ezin izanen dute gehieneko epe hori gainditu, epe horretan lanpostu batean baino gehiagotan aritzen badira ere.

Bederatzigarrena.–Errekurtsoak.

Kalifikazio epaimahaiaren egintzen eta ebazpenen kontra, gora jotzeko errekurtsua aurkezten ahalko da, Funtzio Publikoko zuzendari nagusiari zuzendua, errekurtsuaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hilabeteko epean.

Deialdien, haien oinarrien eta haiek aplikatzeko egintzen kontra, kalifikazio epaimahaiak hartutakoen kontra izan ezik, zilegi izanen da gora jotzeko errekurtsua jartzea, Lehendakartzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritu nahi den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 57. artikuluekin bat eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. eta 115. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 25ean.–Funtzio Publikoko zuzendari nagusia, Amaia Gofí Lacabe.

I. ERANSKINA

GAI ZERRENDA

1. gaia.—Oinarrizko elektrizitatea.

- Elektrikarien oinarrizko tresnak (bihurkinak, guraizeak, aliketak...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Eraikinetako banaketa koadroak, potentzia kontrolatzeko etengailua, magnetotermikoak, eta diferentzialak.
- Hots egiteko zirkuituak (pultsadoreak, txirrinak).
- Oinarrizko argi-zirkuituak (etengailuak; kommutadoreak; entxufe oinak, lurreko hargunearekin zein gabe; lanparak).
- Fluoreszente zirkuituak (pitzarazgailuak, erreaktantziak, lanpara fluoreszenteak).
- Zirkuitu bereziak (alarmak, larrialdiko argiak).
- Segurtasun arauak. Konpontze-lanetan hartu beharreko arreta.

2. gaia.—Oinarrizko mekanika-metal arotzeria.

- Mekanikako oinarrizko erremintak (mailuak, bihurkinak, hainbat motatako giltzak, zerrak, eskuko zulgailua...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Sarrailagintzako oinarrizko eragiketak (ate eta leihoen doitzea, sarrailak eta zilindroak, metalezko altzarien mantentze-lanak).
- Segurtasun arauak. Konpontze-lanetan hartu beharreko arreta.

3. gaia.—Iturgintza-berokuntza.

- Iturginaren oinarrizko erremintak ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Iturgintzako instalazioen (sanitarioak, txorrotak, zisternak, sifoiak) mantentze-lanak.
- Berokuntzako instalazioen (zirkuituak, erradiadoreak betetzea eta purgatzea, galdara gelak, osagai nagusiak) mantentze-lanak.
- Segurtasun arauak. Konpontze-lanetan hartu beharreko arreta.

4. gaia.—Zurgintza.

- Zurgintzako oinarrizko erremintak (mailuak, zerrak, trintxak, zulagailu elektrikoa... eta bestelako osagarriak: lixak, lekedak...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Arotzeriako oinarrizko eragiketak (ate eta leihoak doitzea).
- Sarrailak eta zilindroak. Pertsianak: motak, mantentze-lanak eta konponketa.
- Segurtasun arauak. Konpontze-lanetan hartu beharreko arreta.

5. gaia.—Lorezaintza.

- Lorezaintzako oinarrizko tresnak (kimatzeko guraizeak, belarra mozteko makinak, aitzurrak...) ezagutu, erabili eta mantentzea.
- Lorategiak mantentzeko oinarrizko eragiketak (aspertsoreak jartzea, erregulatzea, funtzionamenduan jartzea, garbitzea...).
- Lorategirako produktuak (ongarriak, intsektizidak...) aplikatzeko oinarrizko ezagutzak.

II. ERANSKINA

ESKABIDEA, ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO, ETXEZAIN GISA

DEIALDIAREN DATUAK.

Lanpostua			
Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Zk.:	93	Eguna	2016ko maiatzaren 16a

DATU PERTSONALAK.

Izen-deiturak			
NANA	Nazionalitatea	Jaioteguna	
Helbidea (kalea, zk., atea...)			
Herria			
Posta kodea	Probintzia		
Telefonoak (3 gehienez)			
Helbide elektronikoa			

BAIMENA.

<input type="checkbox"/>	Baimena ematen diot Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari espedientea tramitatu eta ebaztearren nire nortasunari (NANA) eta jaiotzari buruz deialdian eskatutako datuak kontsultatzeko eta egiaztatzeko beste administrazio publiko batzuetan. Baimena eman ezean, NANaren fotokopia erantsi beharko da.
--------------------------	--

DESGAITASUNAREN EGIAZTAPENA (BIDEZKO DENEAN, BAKARRIK).

<input type="checkbox"/>	Desgaitasuna dut eta eskabidearekin batera horren frogagiria aurkezten dut.
<input type="checkbox"/>	Desgaitasuna dut, eta, horrenbestez, azaltzen dudana egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik. (Beste orri batean, desgaitasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak azalduko dira).

EUSKARAZKO LANPOSTUAK (DEIALDIAN AGERTZEN BADIRA BAKARRIK)

Euskaraz jakin beharra duten lanpostuak ere aukeratu ahal izatea eskatzen dut, eta horretarako honako hau adierazten dut:

<input type="checkbox"/>	Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko titulua izatea (2. eta 3. jakite maila).
<input type="checkbox"/>	Hizkuntza eskola ofizial batean euskarazko laugarren kurtsoa edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatziz "urrats" gainditu ditudala (1. jakite maila).
<input type="checkbox"/>	Euskara maila neurtzeko proba egitea eskatzen dudala.

HALABER, HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa badudala.
Ez nagoela eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua, ezta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizita ere.
Baditudala deialdian eskatzen diren tituluak eta bertako baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

<input type="checkbox"/>	Ez dudala Espainiako nazionalitatea. Zin egiten edo hitzematzen dut ez dudala (sorterria) funtzio publikoan sartzeko diziplina zehapenik edo zigor penalik. (e)ko
--------------------------	---

Tokia eta eguna	Sinadura

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, adierazten da agiri honetan ageri diren datuak eta Administrazioarekin etorkizunean izan daitekeen zerbitzu harremana kudeatzeko beharrezkoak diren gainerako guztiak datuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Nafarroako Gobernuko Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia da fitxategi hori egoki erabiltzearen arduraduna, eta bertako datuen konfidentziaztasuna bermatzen du. Datuen titularrari adierazten zaio datu pertsonalak ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien aurka jotzeko eskubidea erabiltzen ahal duela, datuak babesteko indarra duen araudiarekin bat.

Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari.
Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
Karlos III.aren etorbidea, 2, 31002, Iruña.

III. ERANSKINA

ESKABIDEA

PRESTAKUNTZARAKO ZERBITZU BEREZETAN ARITZEKO ETXEZAIN GISA

(Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioako langile finkoek baino ez)

DEIALDIAREN DATUAK.

Lanpostua			
Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua. Zk.:	93	Eguna	2016ko maiatzaren 16a

DATU PERTSONALAK.

Izen-deiturak			
NANA	Nazionalitatea	Jaioteguna	
Helbidea (kalea, zk., atea...)			
Herria			
Posta kodea	Probintzia		
Telefonoak (3 gehienez)			
Helbide elektronikoa			

NIRE LANPOSTUAREN DATUAK.

Departamentua	
Zerbitzua	
Lanpostua	
Maila	

DESGAITASUNAREN EGIAZTAPENA (BIDEZKO DENEAN, BAKARRIK).

<input type="checkbox"/>	Desgaitasuna dut eta eskabidearekin batera horren frogagiria aurkezten dut.
<input type="checkbox"/>	Desgaitasuna dut, eta, horrenbestez, azaltzen dudun egokitzapena eskatzen dut, adierazten ditudan arrazoiengatik. (Beste orri batean, desgaitasunaren arrazoiak eta eskatutako egokitzapenak azalduko dira).

EUSKARAZKO LANPOSTUAK (DEIALDIAN AGERTZEN BADIRA BAKARRIK)

Euskaraz jakin beharra duten lanpostuak ere aukeratu ahal izatea eskatzen dut, eta horretarako honako hau adierazten dut:

<input type="checkbox"/>	Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren C1 mailaren pareko titulua izatea (2. eta 3. jakite maila).
<input type="checkbox"/>	Hizkuntza eskola ofizial batean euskarazko laugarren kurtsoa edo Nafarroako Gobernuak antolatutako ikastaroetan bederatzi "urrats" gainditu ditudala (1. jakite maila).
<input type="checkbox"/>	Euskara maila neurtzeko proba egitea eskatzen dudala.

HALABER, HONAKO HAU ADIERAZTEN DUT:

Nire lanpostuan jardunean egoteko behar diren tituluez gain, deialdian eskatzen diren tituluak ere baditudala eta deialdiko baldintza guztiak betetzen ditudala, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean.

Tokia eta eguna	Sinadura

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoa betez, adierazten da agiri honetan ageri diren datuak eta Administrazioarekin etorkizunean izan daitekeen zerbitzu harremana kudeatzeko beharrezkoak diren gainerako guztiak datuen fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Nafarroako Gobernuak Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia da fitxategi hori egoki erabiltzearen arduraduna, eta bertako datuen konfidentzialtasuna bermatzen du. Datuen titularrari adierazten zaio datu pertsonalak ikusi, zuzendu, ezabatu eta haien aurka jotzeko eskubidea erabiltzen ahal duela, datuak babesteko indarra duen araudiarekin bat.

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Departamentuari.
Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusia.
Karlos III.aren etorbidea, 2, 31002, Iruña.

IV. ERANSKINA

ESKUALDEEN HAUTAPENA, KONTRATAZIOETAN PARTE HARTZEKO ETA ALDI BATERAKO KONTRATUAK HAUTATZEKO

LANPOSTUA: ETXEZAINA

Izen-deiturak _____

Honako eskualde hauetako lanpostuak aldi baterako betetzeko aukera izan nahi dut⁽¹⁾:

A) NAFARROA OSOAN

B) Eskualde hauetan bakarrik:

1. ESKUALDEA, IRUÑERRIA: Antsoain, Arre, Barañain, Beriain, Berriozar, Burlata, Uharte, Imarkoain, Mutiloa, Noain, Olatz, Orkoién, Iruña, Atarrabia, Zizur Nagusia.

2. ESKUALDEA, IRUÑEKO GERRIKOA: Añorbe, Arrizabalaga, Zirauki, Eugi, Lantz, Larraintzar, Mañeru, Elo, Obanos, Gares, Tebas eta Zubiri.

3. ESKUALDEA, IRURTZUN: Altsasu, Arbizu, Areso, Betelu, Etxarri Aranatz, Ezkurra, Goizueta, Irurtzun, Iturmendi, Jauntsarats, Lakuntza, Leitza, Lekunberri, Olazti, Uharte Arakil, Urdiain, Ziordia.

4. ESKUALDEA, DONEZTEBE: Almandoz, Amaiur, Arantza, Arizkun, Arraioz, Azpilkueta, Beintza-Labaien, Bera, Doneztebe, Elizondo, Eratsun, Erratzu, Etxalar, Gartzain, Igantzi, Irurita, Ituren, Legasa, Lekaroz, Lesaka, NARBARTE, Oronoz, Saldias, Sunbilla, Urdazubi, Ziga, Zubieta, Zugarramurdi.

5. ESKUALDEA, IRUNBERRI-ZANGOZA: Abaurrea, Oibar, Agoitz, Arike, Auritz, Aurizberri, Kaseda, Erroibar, Eslaba, Ezkaroze, Garralda, Hiriberri Aezkoa, Izaba, Ledea, Irunberri, Luzaide, Nabaskoze, Otsagabia, Orbaizeta, Orotz-Betelu, Orreaga, Erroñkari, Zare, Zangoza, Urrotz, Uztarroze, Esa.

6. ESKUALDEA, TAFALLA: Artaxoa, Barasoain, Beire, Berbintzana, Caparros, Zarrakaztelu, Faltzes, Figarol, Funes, Garinoain, Larraga, Martzilla, Melida, Mendigorria, Milagro, Miranda Arga, Murillo, Erriberri, Azkoién, Pitillas, Arrada, San Martin Unx, Santakara, Tafalla, Uxue, Alesbes.

7. ESKUALDEA, ESTELLERRIA: Abartzuza, Allo, Antzin, Andosilla, Arroitz, Azagra, Carcar, Deikaztelu, Lizarra, Lerin, Lezaun, Lodosa, Los Arcos, Mendabia, Muniain Iguzkitza, Murieta, Oteitza, Jaiz, San Adrián, Sartaguda, Sesma, Viana, Villatuerta, Zudairi.

8. ESKUALDEA, TUTERERRIA: Ablitas, Arguedas, Buñuel, Cabanillas, Cadreita, Cascante, Castejón, Cintruénigo, Corella, Cortes, Fitero, Fontellas, Fustiñana, Monteagudo, Murchante, Ribaforada, Tuter, Valtierra.

Aukeratutako eskualdeetan lanaldi partzialean lan egiteko prest egonez gero, lauki hau ere markatu.

Zein hautatzen diren, horrek ondorioak izanen ditu zerrendak indarra duen denbora guztian.

Iruñean, 20____ (e)ko_____aren ____ (e)an

(Sinadura)

(1) Adierazi X batez bidezko diren laukiak